

GOIERRIKO EGITURA

INDUSTRIALAREN ERRADIOGRAFIA

Jone Ormazabal Zabaleta

Goierriko Euskal Eskola Elkarte, Maizpide Euskaltegia eta Lazkaoko Udala,
Lazkao, 2008

XIII. Gerriko Ikerlan Bekaren epaimahaikideek (Mikel Zurbano, Jose Inazio Imaz eta Xabier Itzaina) eta antolatzaileek «accesit» saria eman zioten Jone Ormazabal Zabaletaren *Goierriko Egitura Industrialaren Erradiografia* proiektuari. Batik bat Goierriko industrialaren eraikuntzaz ari bada ere —bestela ezin izan—, Goierri Beherean lanpostuak dakartzaten jarduera ekonomiko guztiak aipatzen ditu. Gogora ditzagun zifra batzuk: gaur egun, enplegatuen % 46 ari da industrian, % 45 zerbitzuetan, % 7 eraikuntzan, eta % 2 nekazaritzan. Goierri Beherea, Aralar eta Aizkorri mendikateen oinean, Oria ibaiaren inguruan kokaturik, ibar, muino eta mendien segida beti aldapatsuz osatua, deigarri gertatzen da euskal industriaren sarean lortutako postu-gatik. Bizkaian lehen industrializazioak erroak bota bezain laster, Beasaingo San Martin auzoan, 1862an «Goitia eta Cia» burdin fabrika, teknologia berrienez hornitua, labe garaiak jarri zituzten. Lehen industria horren alorrean sendotze konfirmazio bezala, 1892an, «La maquinista Guipuzcoana», metalean jardungo zen industria sortzen da. 1901ean, «Fabrica de Vagones de Beasain», aurrekoa irentsiz, burdinbideetako material-lanean sartu zen. Eta lehen aldiko eraikuntza industrialaren multzo hau ixteko, 1917an, gaur egun CAF deituraz ezagutzen dugun «Compañía Auxiliar de Ferrocarriles» eraiki zen. Gero, urteak joan ahal, hainbat tailer txiki, maila ertaineko

eta lantegi handi eraikitzen ikusi izan dira. Eta horretan jarraitzen du: azken hamarkadan 50 enpresa sortu dira.

Erradiografiaren emaitza nabarmenenak

2001eko Europar Batasuneko kide ziren Estatuetakoen enplegatuen sektoreka hartuz konparatuta, estatu-errealitatek ez duen Goierriko, industria-enpleguetan lehen postua hartzen duela, adierazi behar da. Baina, kontrapuntua da, zerbitzuetako enpleguetan hemezortzigarren postuan dagoela. Eta nekazaritzatik datozen enpleguetan hamaseigarrena dela. Hori horrela izanik, egoera orokorra egokiena ote da, ala gizarte desorekaturantz ari garen seinaleak ote liratekeen galdetzea ez da inozoa. Dibertsifikazio eta aniztasun orekatuaren irizpideari jarraitzea jakintsuena dela ekonomian ere esan baiditeke. Dibertsifikazioa eta aniztasuna sektore bakoitzaren barnean bezala, sektore desberdinen artean kontsideratu beharko genituzke

Industria-sektorearen barnera so jartzen bagara, hauxe ageri zaigu: Goierriko ekonomia garaikidearen motor eta ontzi intsignia diren CAF edo Irizar —bakoitza arrazoi desberdinetatik, noski— aparte utzita, industria-enpresa goierritarrak, tamainaz, txiki eta ertainak direla. 2004an, industria-enpresen % 90ek 50 langile baino gutxiago zituen eta 10 langile baino gutxiago zituztenak, berriz, % 53 ziren.

Alde horretatik so, Goierrik egokitasuna ageri duela esango genuke, baldin eta modernizazioaren jarraipena egitean sare osoa kontuan hartzen bada. Hasteko, teknologia-garapena hedatu behar da azken enpresa unitate txikiena barne hartuz. Baina kezkatuak diren datuek. 100 langile baino gehiagoko enpresa guztiek maila teknologiko altua dutela adierazten baitzaigu. Langile kopuru horiekin ari diren enpresak gutxi bakar batzuk baitira, nahiz eta enpleguen gehiengo handiena eurretatik etorri. Egia da, aldi berean, teknologia-berrikuntzaz ari garenean enpresa mota guztiek ez dutela premia bera. Hala ere, esaten zaigunez, 50 langile baino gehiagoko enpresa guztiek zuzentzen dituzte euren baliabideak I+G (Ikerketa eta Garapena. Gaztelaniazko I+D) jardueretara. Baina teknologia-berrikuntza ez da guztia modernizazioa beharrezkoa dela diogunean. Gaur egun, inoiz ez bezala, informazioaren menpe bizi gara. Horrek ahalegin bereziak eskatzen dizkigu informazio-munduko aurrerapen guztiez jabeturik bizi ahal izateko. Kezkatuak gelditzen gara, Goierriko enpresetan produktu eta ekoizpen-prozesuko berrikuntzaz arduratzen direnek, gehienbat, aldizkari espezializatu eta ferietan lortzen dutela informazioa esaten zaigunean. Hala ere, beste esaldi hau ere aurrekoa konpentsatzeko-edo jasotzen da: enpresa handiek, aipaturiko metodo horiez gain, I+G analisiak, ingeniartzaren eta kompetentziaren azterketak darabiltzabela, alegia. Ikuspegi historiko batetik begiratzen badugu Goierriko industriaren garapenean izan duen rolagatik, ezin ahaztuzkoa da 1963an gizarte-ekimenez, guraso-elkarte eta eskualdeko enpresen bultzadaz sortutako Goierriko Lanbide Eskola. Gora-behera politikoak direla medio, 1965. urtetik

aurrera moteltze-fase batean sartuko zena, 1975. urte inguru arte iraun bazuen ere. 1980an Goierri Fundazioa sortu zen. Ibilian jarriz gero, Goierri Zerbitzu Teknologikoa, Goierri Goierri Lanbide Eskola eta Ikaslan bultzatu zituen. 1993an, Goierriko 18 udalerrik eratua, Goieki SA, Eskualdearen Garapenerako Agentzia, jarri zen abian. Bere jardueretan, argi dago, teknologiarik berrikuntzaren eginkizuna izan duela helburu beste ezer baino gehiago. Besteak beste enpresa, turismo, negozio eta ikerketa gurutzatuz, eskualdeko garrario publikoaren jarraipena eta koordinazioa egin ditu. Industriamunduan, besteak beste, emakumeen kolektiboa bultzatzea eta ideia berrien lehiaketa prestatzea eginkizunak aurrera eramaten ere saiatu izan da. Eta, nola ez, gaur egungo eskualdearen beharrei egokituriko ikasketak lortu nahirik, 2001ean Mondragon unibertsitatearen adar bezala ingeniari tekniko eskainiko zuen unibertsitatea sortzen da. Baina gaur egungo beharren interpretazioa motzegi ez ote dago egina? Behar horiei sistematikoki aurre egiteko, Goierrik ez al lituzke beharko giza eta gizarte-zientzien unitate sendo aplikatuak, lekuan lekuko diren arazoak globalizazio dimentsioarekin hobeto lotzeko, alegia. Unitate horrek, noski, unibertsitate-zerbitzu bezala, eta enpresa txiki, ertain eta handien osotasunarentzat eskainia izan beharko luke.

Sektore desberdinen artera so jartzeko bagara, berriz, hau diosku erradiografiak: iraganean murgiltzen bagara Goierriren historia luzean lerrotatuz, mendeetan oinarritako izan dena, hots, lehen sektorea deskuidatu samar dagoela gaur egun. Ez, noski, sektorearen europar zifraren neurrian ez dagoelako. Gauza bat da Goierriko nekazaritza-ahalak zailtasun handiko

izatean indarra galtzea. Baina, abeltzaintza eta basogintza aparteko auke-raz eraman litezke aurrera, ziur asko, gaur ere Goierri; hala iruditzen zaigu. Aurrerapenez beteriko edozein gizarte-arentzat landa-eremuak estrategikoak baitira. Europako herrialde batek betidanik izan duen norabide eredugarria nabarmenduko nuke arlo honetan, hots, Suitzak izan duena. Han ekonomia integrala praktikatzen da. «Gerrako ekonomia» ere deitzen zaio. Eta azken deitura hori ironiaz jaso beharko genuke zeren European herrialde bat gerretatik libratu bada, Suitza baita. Adierazi nahi duguna da ezen luraren metro karratu bakoitza aktibo izan dadin zaintzen dela han. Etorkizuneko Goierri dagokionez, landa-eremuak landazainez bete beharko lirateke oreka ekonomikoari eutsi nahi bazaio. Sektorean ekarriko lituzkeen lan-postuez gain, ekonomia integrala azkartzeko bertutea izango luke horrelako jokabideak. Abeltzaintza eta nekazaritza ekologikoa gurutzatuz jarduteko lurralde bikaina baita Goierri. Horrek gainerako ekonomia-sektoreei erakarritasun distiratsua ekarriko lieke, noski. Lurralde bat osotasun bezala ikusteko joera izan behar baikenuke.

Etorkizuneko dimentsioan lerrokatuz, beste edozerk baino hobeto hiru-garren sektoreak edo gizarte tertziarizatuak sinbolizatzen digunera ailegatzten gara. Goierri duen tertziarizazioa Euskal Herriko puntakoeneretik eskualdearenetik eta gutxienekoarenetik ia-ia urrunkide ageri zaigu. Bilboren ezker ertzeko tertziarioak % 61,2 enplegu dauzkanean, sektore horretan Deba Garaiak % 36,9 bakarrik baititu. Tertziarizazioa merkatu globalizatuarekin, bizitzaren kalitatearekin eta feminizazioarekin lotzen digu soziologiak. Eta lotura komun bat dute hiru aldagai horiek: ezagutzarena! Ezagutza-edu-

kietan aldaketa historikoak eman direnean, hots, zibernetikaren eraginez bizitzen hasi ginenean, ordu arteko antolakuntza-hesiak, sozialak, kulturalak eta moralak zartatu baitziren. Iraultza mental erraldoi baten aitzinean gaude. Goierri iraultza mental horri jaramon egin behar dio. Tertziarioa aberastuko dugu eta, elkarrekin interdependentzian daudenez, beste sektoreak motorizatuko ditu horrek. Baina, aspaldiko galdera bat irekiz amaituko dugu: zer garrantzi ematen diegu azpiegitura- eta gainegitura-harremani?

Goierri gizatiarraren garrantzia

Goierri industriagintza abiatu zenean ez zegoen Euskal Herriko beste hainbat eskualdetan baino azpiegitura faktorial bereziagorik. Ez zegoen lehengai partikularren ugaritasunik. Ez zegoen ondare ekonomiko deigarririk. Ez zegoen jakintza industrial apartekorik. Eta abar luzeko zerrenda bat idazten jarrai genezake. Norbaitek, hala ere, esan lezake errepide nazional bat, eta trenbide internazional bat bertatik igarotzea izan litezkeela faktore esanguratsu eta definigarriak. Baina horiek Irundik hasi eta Madrilaino edo Lisboaraino hainbat herri eta herrixkentangat ere faktore komunak ziren. Hemeretzigarren mendean Euskal Herrian agertu zen ekonomia-sektore berria Goierri hain garaiz bere egin izana esplikatu nahi bada, goierriarren mentalitatearen sekretuen miaketara jo behar da. Hau da goierriarren idiosinkrasia eratu duten ideia, balio eta motibazioen azterketara. Hemen eta orain ez dugu hori itxuratuko, are gutxiago agortuko. Hemen komentatzen ari garen erradiografia horren pareko ikerketa bat beharko luke gutxienetik gai horrek maila horretako erradiografia seriooki gauzatzeko. Hurrengo ikerketa-deialdi baterako irekita galdi-

tzen den balizko gaia seinlatu besterik ez dut egin nahi oraingoz. Goierri-tarra abeltzaintzara, nekazaritzara, basogintzara dedikatu behar izan zen soslai gizatiar latz bat eraikitzen joan zen mende luzeetan. Latza, ingurumen etsai eta zorrotzarekin bizi izan zelako, noski. Esaldi herritar batekin definituko nuke: «Goierri-tarra belar motzean hazitako giza aberea dugu». Zailtasunak eta sufrimenduak triskantzaz triskantza bizitzen ikasi duen gizabanakoa dugu, alegia. Horrek guztiak kosmosaren aitzinean arraildurik, enkoniatuak eta zapuzturik jartzean sorkuntza-mundu batera eragin dio. Goierri mendez mende produzitu zuen mitologia aberatsak eta kristautasunaren ailegatzean gertatutako asimilazio egokituak ulergarriago egiten lagunduko ligukete, industriagintza gure Euskal Herrira ekonomia-aukera bezala agertu zenean, goierri-tarrek horretan inplikatzean erakutsi zuten adorea zergatia. Baina ideia, balio eta motibazio putzu hori etengabe eraberritzen ari den fenomeno izanik, goierri-tarra

zibernetikaren asimilazioa nola egiten ari den ulertzera ere behartuko gaitu. Are goierri-tarren mentalitate-zolan zibernetikaren ekarpena balio erantsi bezala nola lotzen doan jakitera heldu behar denean. Goraka doan eraikuntza baten aitzinean baikaude. Idiosinkrasia eraberritu baten sorkuntzan, alegia. Kosmosarekiko hurbilketa berri honek, nola bere barren logika propioaren eraginez hala piztutako jarduera psikikoen ondorioz, goierri-tarra alor moralean eta ekonomikoan portaera indibiduala eta kolektiboa modu jakinean egitera darama. Aurreko mendeetako goierri-tarra moldatu zuten aszetismo morala, lanaren ezinbesteko balioa, Estatuaren aitzinean jarrera trinkoa, bizitza latzaren onarpena, zurruntasuna, baita behartsuarekiko eskuzabaltasuna ere, non gelditzen ari ote dira? Zer edukiz ordezkaturik zutituko ote zaigu ideia, balio eta motibazioen etorkizuneko sistema iraunkorra?

Jokin Apalategi